

AINTZINAROKO GREZIA ARO ILUNETIK ARO HELENISTIKORA

1. GREZIAKO MENDE ILUNAK

1.1 ARO ILUNA

Garai hau K.a. XII-IX. mendeetan eman zen, mizenastar kultura desagertu ondoren. Aniztasun geografiko eta kronologikoa gailendu zen.

Garai honetako iturri historikoak eskasak dira (izenak dio iluna dela), eta iturri idatzi gehienak desagertuta daude, lineal B idazkeraren adibide izan zitezkeenak.

FASEAK

XI. mendea → garai postmizenikoa, mizenasen jarraitasun bat existitzen da.

XI-IX. mendeak → Lefkandi

1050 → Atika

Mizenas desagertzean, aldaketa batzuk eman ziren baina mizenasen jarraipen bat eman zen ondoren etorri zen garai postmizenikoan. Horrela, biztanleria eta hizkuntza berdina erabiltzen zuten, erlijioa eta jaingo izenak mantendu zituzten eta ahozko memoria batez ere Homeroren bitartez mantendu zen.

Peloponesoren kasuan, ordea, jauregiak desagertu ziren, baita mizenasen agintzen zuen jauregi-sistema ere, bere funtzio guztiekin. Merkataritza arloan ere galera handia eman zen, harremanak galdu baitziren.

Horrela, populazioa Peloponeso erdialdean berrantolatu zen.

GIZARTEA

Biztanleria moldatu beharrean aurkitzen zen eta burdina erabiltzen hasi zen, horretarako prozesuak geroz eta hobeto menderatuz. Orokorrean, harrizko arkitektura desagertu zen. Gainera, abeltzaintza nekazaritza baina garrantzitsuagoa bilakatu zen.

Hilobiratzeen kasuan, errausketa gailendu zen (gorpuak erretzea), ontzian sartu eta zistan (harrizko laukia) lurperatzen zela.

- Migrazioak

Lehenik, iparraldetik hegoaldera eman zen migrazioa, grekera doriarraren banaketarengatik. Honen inguruan mito asko badaude ere, populazioan aldaketa edo mugimendu bat eragin zuela argi dago.

Bestalde, greziarren partetik lehen kolonizazioa eman zen Asia Txikian. Koloniak egiteko baldintza onak ematen zizkien portuak zeuden bertan. Hasieran, toki batzuetan egiten zituzten koloniak, baina ondoren zabaltzen joan ziren inguruko lurraldeetara.

LEFKANDI

K.a. XI-IX mende artean eman zen hiri honen goraldia, eta Eubea irlan kokatzen zen hiri bat zen. Gizarte konplexua eratu zen bertan; merkataritzak eta hiletak garrantzi handia hartu zuten eta harrizko arkitektura garatu zen, adibide diren bezala 'heroon' esturaturak.

ATIKA

Garai honetan jarraitasuna egon zen eta merkataritza komunikazioaren erdigune bilakatu zen. Zeramika oso erabilia izan zen garai horretan.

- 1) Zeramika protogeometrikoa → K.a. 1050-900 urte bitartean garatu zen, zirkulu erdi eta osoak egiten hasiz, teknikak hobetu eta esportatzearekin batera.
- 2) Hasiera eta Erdiko zeramika geometrikoa → K.a. IX. mendean dekorazio konplexua erabiltzen hasi ziren, 'horrore vacui' eta zaldia lehen aldiz erabiliz.
- 3) Zeramika geometriko finala → K.a. 800 urtetik aurrera, aro arkaiko hasieran erabiltzen ziren eta gizakia lehen aldiz errepresentatzen hasi ziren.

1.2 HOMEROREN MUNDUA

VII. mendean idatzitako poema epikoak aurkitu ziren, baina ez dute errealitatea islatzen, eredu moralak baizik. Bertan agertutako heroien baloreak imitagarriak ziren, miresgarriak eta greziarrentzat balio handia zuten pertsonaiak ziren, jainko eta gizakiaren arteko izakiak baitziren heroiak (Akiles, Ulises...).

ILIADA poema garrantzitsu bat izan zen eta bertan Troiako gudaren berri ematen da, Akilesen haserrearekin batera.

ODISEA pasarteak ere garrantzia du, izan ere, bertan Ulises gerlariak gerratik Itakara 10 urte igarotzen dituela aipatzen da, Itakan bere emazte Penelope esperoan dagoela.

AUZI HOMERIKOA

Homeroren existentzia zalantzan jartzen hasi ziren; teoria batzuek poemen egile anitzen ideia plazaratzen dute, beste batzuek egilea bakarria dela eta hipotesi mixtoaren arabera, ahozko poema bat zen, ondoren norbaitek transkribatzea erabaki zuena.

Aro ilunean sortutakoak ziren eta VIII. mendean jarri ziren idatziz, baina VI. mendeko bertsioa jaso dugu. Garai desberdinetako ezaugarriak agertzen dira; mizenikoak, aro ilunekoak, VIII. mendekoak (hoplitak) edota elementu komunak. Zentzu horretan, interpretazio arazoak sortu dira.

GIZARTE HOMERIKOA

Irudi literario idealizatu bat den heinean, ez dakigu erreala den. Homeroren hitzetan, Grezian hainbat erreinu txiki zeuden eta ez zegoen botere zentralik, nahiz eta Basileus (errege figura) bat buruzat hartu. Basileusak inguruan Aristoiak zituen, eliteko pertsonak, eta horiek ziren gerretako buruzagiak.

ARISTOI > familia aristokratikoen garrantzia handia zuten Homeroren hitzetan; familia horiek patriarkalak ziren eta agintea zein herentzia gizonen artean banatzen zen. Emakumeek dotea jasotzen zuten (aberastasun kantitate bat, ezkontzean senarrei ematen ziena).

Gizona OIKOSaren (etxea) buru zen, baliabideak zituen (animaliak...) baina ez zituen berak zaintzen, menpeko pertsonak baizik. Geroz eta lur gehiagok aberastasun eta botere handiagoa ekartzen zuen. Aristokratik Basileusarekin gerra joatean, harrapakinak lortzen zituzten (luxuzko gauzak, esklabuak, abereak...) eta horiek prestigioaren arabera banatzen ziren, Basileusak gehiena eramanez.

Emakumeak gizonen menpe zeuden. Beraien ardura seme alabak izan eta senarra kanpoan zenean OIKOSa zaintzea zen, baita emakume esklabuak kudeatzea ere. Orokorrean, ehungintza lantzen zuten. Emakume batzuek beste batzuegan prestigioa zuten, familia boteretsuetakoak gehien bat. Gainera, familien arteko aliantzak egiteko erabiltzen ziren emakumeak, ezkontza edo esklabutzaren bitartez.

DEMOS>gizon libreak ziren lurak zituztenak; menpekoak zituzten lur horietarako baina ez ziren elitekoak kontsideratzen. Normalean ejerzitan sartzen ziren.

DEMIURGO>zerbait teknikoak egiten duten pertsonak (artisansak, enbaxadoreak...)

THES>pertsona libreak dira baina ez dira lurren jabe, aristokratentzat lan egiten dutenak soldada baten truke.

DULOI>esklabu izendatutako pertsonak.

2. ARO ARKAIKOA

Garai honetan polisaren sorrera eta garapena eman zen, baita nortasun grekoaren sorrera ere; hizkuntza, erlijio (santutegi panhelenikoak) eta bizimodu zein kultura grekoak gailendu ziren. Grekoak ez zirenak, ordea, barbarotzat jotzen zituzten.

Mediterraneoko kolonizazioan zentratu ziren eta kultura material eta iturri asko igorri zituzten, hala nola, txanponak, idatziak edota iturri ikonografikoak.

ITURRI HISTORIKO BERRIAK

Idazkeraren aldetik, grekoak alfabeto feniziarrez baliatu ziren, lineal B deritzon idazkera erabiliz.

Iturriei dagokienez, hainbat maila eta formakoak izan zitezkeen.

- Lehen mailako iturri idatziak

Epigrafia bitartez jasotakoak izan daitezke, normalean euskarri gogorretan idatzitakoak direnak, hala nola, harria, zeramika. "Nestoren Kapa" izan zen horren lehen adierazpena.

Testu literarioak ere ager daitezke, mendeetan egindako kopiak izaten direnak, tradizio literarioa mantenduz. Horren adierazpen nagusiak dira HOMERO edo HESIODO.

Poesia lirikoak edota filosofia ere balia daitezke iturri gisa; horren adibide garbiena SAFO da.

- Bigarren mailako iturriak

Orokorrean, historialari grekoak izaten dira horiek, interesek eraginda bada ere, gertakarien informazioa helarazten dutelarik.

- Lehen txanponak

Numismatikari dagokionez, lehen aldiz Lidian (Asia Txikia) agertu ziren, VII. mendean. Ondoren, VI. mende erdialdean agertu ziren Grezian.

Hiri bakoitzak bere txanpon propioa izateko autonomia garatu zen, baita menpeko hiriek ere. Txanponaren funtzioa hiriaren beharrak asetze forman ulertzen zen.

2.1 POLISAREN SORRERA ETA BARNE DINAMIKAK

POLISA

Antzinako Grezian, komunitate politiko autonomo eta subiranotzat definitzen da, helburu ekonomikotzat autarkia zuena. Horrela, antzinako greziarren antolakuntza soziopolitiko arruntena zen. Komunitate itxiak izaten ziren, hiritarrek bakarrik osatutakoak. Horretarako, hiritartasuna lortu egin behar zen eta azken hori murriztua zen, horrek ahalbidetzen baitzituen hainbat eskubide.

Hiriguneari 'asty' zeritzon, errepresentazio politiko, erlijiosoa eta merkatua kokatzen zen tokia, eta nekazal guneari, ordea, 'chora'. Horiek biek, erlazio estua mantentzen zuten.

Aro arkaikoan polisak gailendu ziren, baina herri txikiagoak egotean, ETNOS bezala identifikatzen ziren. Alabaina, bai polisetan eta etnosetan herritarrak irabazten zuen zentralitate guztia.

Polisek tamaina aldakorra izaten zuten, eta greziarren artean, Atenas eta Esparta nagusitu ziren denboran zehar, tamaina handiarengatik.

POLISAREN SORRERA

Aro ilunaren amaieran sortu arren, aro arkaiko zein helenistikora zabaldu ziren egiturak izan ziren. Koloniek batera, gainera, mediterraneoan zehar zabaldu ziren, hasieran ETNOS izan zitezkeenak ondoren POLIS izateko prozesua emanez.

Hainbat modu daude polis baten sorrera emateko.

SINEZISMOA (syn-oikismos) → OIKOS (etxea) unitate ekonomiko familiarra bezala ulertuta, horien elkarketa ematean KOMAI (herrixka) sortzen zen, eta ondoren tamaina handiago batean POLISA.

FUNDAZIO KOLONIALA → polis bateko hiritar talde bat kokapenez aldatzen zenean ematen zen, beste leku batean hiria eratzen zutela.

POLIS ARKAIKOAREN BARNE DINAMIKAK

- Polis aristokratikoa

Monarkiatik oligarkiara igarotzeko pausua eman zenean, familia aristokratikoez botere asko irabazi zuten; horiek odolagatik determinatzen ziren eta heroien ondorengo izendatzen ziren. Ekonomikoki eta politikoki nagusitasuna erakusten zuten eta jendea beraien menpe izateaz gain, polisak sortzeko gaitasuna garatu zuten.

Polisak sortzean, boterea justifikatzeko hainbat bide erabiltzen zituzten;

literatura beraien ikuspuntua eta nahiak adierazteko (batez ere poesia lirikoak). Horiek oturuntzetan (bankete aristokratikak) irakurtzen zituzten, demosak entzuteko. Hiletan bitartez, handitasuna erakusten zuten, baita emakumeen presentzia erakutsi ere (negar eginez), horiek HILETARI izendatzen zirela. Gerretara joaten ziren aristokratikak, banakako konbateetan botere erakutsiz. Azkenik, luxua gainean eramaten zuten, boterea publikoki erakusteko.

- Iraultza hoplitikoa

Hasiera batean, gerran ikusten zen eredia borroka indibidualarena zen, normalean armamentu garestiena nagusitzen zela. Geroago, VII. mendetik aurrera, talde borroka gailendu zen, hoplita gerlariak protagonismoa hartuz (ilaretan borrokatu!). Horiek hopla (ezkutu + lantza) erabiltzen zuten eta hiritarrak izaten ziren.

Horrela, falangeen artean (hoplita taldeak) borrokatzen zuten eta gerrak aristokraten monopolioa izateari utzi zion, hiritar gizonen parte hartzea ematen zen bitartean.

Egoera horretan, hiritar gerlari-nekazari horiek parte hartze politikoa eskatzen hasi ziren, izan ere, polisa babestearen lanak botere sari bat merezi zuela uste zuten. Horrela, ISONOMIA eskatzen zuten, legearen aurreko berdintasuna, baina ez zuten helburua lortu.

- Elite berriak

Merkatariek eta artisauek berebiziko garrantzia lortu zuten, izan ere, beharrezkoak ziren luxua produzitzeko. Horrela, batzuk arrakastatsuak bihurtu ziren eta boterea eskatzen zuten heinean, aristokrazia tradizionalaren kontra egiten zuten.

- Esparru publiko eta pribatuaren banaketa

‘Gizarte Homerikoan’ familia aristokratikoen gauzak publikoak ziren, baina egoera honetan, hiritarren komunitate politikoa sendotu bitartean, aristokraten geroz eta txikiagoa zen. Zentzu horretan, polisaren eta familiaren kudeaketa banatzea erabaki zuten.

Genero sistema ere berrantolatu zuten; gizonezkoak espazio publikoa bereganatu zuten eta emakumeek, berriz, pribatua.

Emakumeen eginkizun nagusiak honakoak bihurtu ziren; oikosa kudeatzea eta seme legitimoak ematea. Hori hiritarren kasua zen. Hiritarrak ez zirenek bi funtzio nagusi zituzten; HETAIRAK luxuzko prostitutak izaten ziren, kulturalagoak, eta oturuntzetan konpainia egiten zieten eliteko gizonei. Bestalde, PORNAI figura prostitutak ziren, behar izan sexualak besterik ez asetzeko.

- Zorpetzearen arazoa

Orokorrean, hiritarren egoera nahiko hauskorra zen, lurzoru txikien jabe baitziren. Horrela, krisi testuinguruan zorpetzea erabiltzen zuten bizirauteko; aristokratei mailegua eskatu eta beraien burua bermetzat jartzen zuten, zorrek modu bateko edo besteko esklabutzat sortaraziz.

Denborarekin arazo larria bilakatu zen eta hainbat irtenbide bilatu zituzten; kolonizazioaren bitartez, beste hiri batzuk sortzera joaten ziren eta poliseko krisia alde batera utzi.

Bestalde, STASIS deritzo polis barneko gatazkak ematen zirenean, betiere talde desberdinen artean. Horizontala izaten zen aristokrazia aristokraziaren aurka aritzen zenean, baina elite berrien aurka izan zitekeen, hoplita edo lurjabe txikien gatazkak edota zorpetuenak.

- Legegintza

Legegileak aristokratak izaten ziren. Ohiturazko zuzenbidea idatzizkoa bihurtu zuten garai horretan, aristokraten interpretazioak ekiditeko asmoz, baina errealitatea da gatazketan epaile bezala zein legegintzan aristokrazia aritzen zela, nagusitasuna nabaritzen.

Gai nagusiak jabetza, familia, lana eta zorrak edota magistraturen mugak izaten ziren. Adibide garbia da Dredoseko legea.

- Tiranoak

Tiranoek botere pertsonala eskuratzen zuten soilik egoera oso larria ematen bazen.; boterea modu bortitzean hartu eta gatazka konpontzen zuten. VII. mendean tiranien gorakada eman zen, eta herriaren aldeko neurriak nagusitu ziren horietan. Hala ere, iturrietan kritika negatibo asko aurkitu dira, aristokratek helarazitakoak gehienak.

Tiranoan aristokratak baziren ere, hiritarren interesak babesten zituzten eta kanpo politika zein ekonomiari garrantzia ematen zioten. Gainera, komunitatea zein hiri-identitatea sustatzea bilatzen zuten, obra zein jaialdien bitartez.

Tiraniak erortzean, sistema demokratikoagoak ezartzen ziren, izan ere, tiraniek botere forma tradizionalak apurtzen zituzten. Orokorrean oso ezegonkorrak izaten ziren, dinastiak eraikitzea nahi bazituzten ere, ez zutelako inoiz lortzen.

2.2 KOLONIZAZIO HANDIA

Aro Arkaikoan hainbat kolonizazio burutu ziren eta hainbat formatan.

*APOIKIA→polis batetik kolonia bat eratzerako joan eta kolonia berri horretan antolaketa administratibo eta politiko berria eraikitzen zuten.

*ENPORION→merkataritza koloniak izaten ziren.

KLERUKIA→Atenasek sortutako kolonia militarrek izaten ziren.

*ez zegoen inongo metropoli baten menpe, komunitate berria osatzen baitzuten.

Normalean, kolonizazioak hainbat arrazoiengatik ematen ziren. Demografiaren hazkundera ematen ari zen eta lur berriak bilatzea behar bihurtzen hasi zen. Gainera, liskar politikoek eragina izaten zuten hiritarren erabakietan (kolonietara joateko). Lan edo aberastasun bila joaten ziren hiritar asko ere, baita nabigazio teknikak ikasi eta praktikan jartzera.

KOLONIAREN SORRERA

Arazo baten soluzioa bilatzeko Delfoseko orakulura jotzen zuten hiritar askok, eta bertan, Apoloni baimena eskatzearekin batera, koloniak arrakasta izango zuen galdetzen zuten. Ondoren, koloniarako prozesua abiarazi eta OIKISTES (kolonia eratzen zuen pertsona) bat jartzen zuten, normalean kostaldean zeuden lurralderen batean.

Kolonia hori jainkoaren babespean jartzen zuten eta hainbat erritu erlijioso egiten zituzten horretarako.

Koloniek eredu hipodamiko bat betetzen zuten; forma eta karratuetan banatzen ziren, eta lurrik emankorrak ez baziren beste lur batzuk bereganatzen zituzten.

Lur horietako biztanleekiko harremanak gorabeheratsuak izaten ziren, baina hala ere, harreman zein aliantzak eliteen bitartez burutzen ziren, merkataritza (trukeak) eta erlijioaren (santutegiak) aitzakiarekin.

2.3 ESPARTA ETA ATENAS ARKAIKOAK

Garai honetako iturri gutxi ezagutzen diren arren, bi hiri horietakoak ezagutzen dira, garrantzia baitzuten. Bien arteko desberdintasuna honakoa zen; Atenas urbanoa eta irekia izan zen eta Esparta, ordea, landa eremuarekin lotzen zen, arkaikoa eta itxia zela.

ESPARTA

Orokorrean, ez zuten artea eta eskultura asko landu, eta informazioa gehiena Xenofonte eta Plutarko filosofoen idatzietatik lortu da. Azken horiek Espartaren aldeko irudi ona ematen zuten eta bere baloreak goraipatzen zituzten.

- Sorrera

Aro arkaikoan beste polisen prozedura bera izan zuen, sinezismo bitartez sortua. Espartan hainbat arazo aurkitu ziren, lur falta esaterako. Horrela, VIII. mendean ondoko herriak konkistatu zituzten, Lakonia eta Mesenia. Gainera, hasieran Espartak kolonia batekin kontaktzen zuen, Tarento izenekoa.

660. urtean, Meseniako konkistan, bertako biztanle guztiak esklabizatu zituzten, gizartea militarizatu. Hortik aurrera, Espartak gerra egiten zuen eta menpekoak lurra lantzeaz arduratzen ziren.

- Espartako gizartea

HOMOI/OI/ESPARTIATA>Espartiatek disziplina zorrotza zuten eta arau militarrik izaten zituzten. Estatuarekiko edo banakoen bizitza kontrolatzen zuten. Familia lotura oso txikiak zeuden eta ez zioten garrantzia handirik ematen, seme-alabek 7 urterekin etxea utzi eta gizon-emakumeek ez baitzuten bizitza elkarrekin egiten. Gerrara bakarrik dedikatzen ziren pertsonak ziren.

Espartiata gizonak militar sendoak izaten ziren eta eugenesia (indartsuenak bizirik) egiten zuten. 7 urterekin hezkuntzara sartzen hasten ziren 20 urte arte (agoge). 20 urterekin instrukzio militarrik jasotzen zituzten gerrarako prestatzeko. Horiek lortu ezean ez zuten hiritartasunik lortzen. 30 urterekin frogan gainditzen bazituzten, asanbladan parte hartzen zuten, gerlariak izan zitezkeen. Estatuak 'kieros' bat ematen zien, lur zati bat, ondoren ILIOTEK landuko zutena. Ezkontzeko eskubidea zuten eta sisetian bizi ziren, 6-10 gizon batera.

Espartiata emakumeen helburua militar sendoak erditzea zen; beraien logikaren arabera, emakume baten semea militar sendoa izateko amaren fisikoak garrantzia zuen. Hezkuntza sistema propioa izaten zuten eta OIKOSA kudeatzen zuten.

PERIECOS>ez zituzten hiritarren eskubide berdinak baina autoritate minimo bat eskuratzen zuten, merkataritza eta artisautzan zentratuz.

ILOTA>Espartako estatuaren esklabuak edo menpeko pertsonak izaten ziren eta ekoizpen lanetaz arduratzen ziren. 'Kieros' bat (lursaila) ematen zitzaion bertan lan egiteko eta ondoren jabeari zati bat ematen zion. Espartiatek nagusitasuna erakusteko ilotak kontrolatuta izaten zituzten, zigor edo tratu txarren bidez askotan.

- Gobernu sistema

Gobernuaren antolaketa Likurgok (legegilea) egin zuela uste da; Espartako konstituzioa mixtoa zela uste zen, oligarkia, demokrazia eta monarkiaren artekoa, nahiz eta errealitatean oligarkian oinarritu.

Espartak DIARKIA zuen, bi erregez osatua. Horiek bi familien artean aukeratzen ziren, AGIDAK eta EURIPONTIDAK. Bi erregeek botere haien artean berdintsu banatzen zuten, eta bate kanpora joan behar zenean, besteak barnea kontrolatzen zuen. Botere militarra, erlijiosoa eta juridikoa zuten.

Gerousian (jakintsu zaharren taldea), hautatutako hiritarrek parte hartzen zuten eta funtzio judizialak betetzen zituzten.

Eforoak 5 partaide zituen eta asanbladatik aukeratzen ziren urtero, nahiz eta hau erregearen kontrolpean egon.

Asanbladan hiritar arruntek hartzen zuten parte. Ejerzituaren antzekoak ziren, baina bertan ez zen eztabaidatzen, txalo kopuru edo soinuen bitartez ematen ziren aukeraketak.

Funtsean, Espartak monarkia berezia zuen, baina oligarkian oinarritzen zena. Alabaina, mistoa zen konstituzio bat zuten.

- Peloponesoko liga

510-500 urte tartean sortu zen, Esparta eta beste hiri batzuekin batera. Hiri hauek Espartarekin aliantza erakusten zuten horrela, eta ez beste hiriekiko. Helburu nagusia elkarri babesa ematea zen.

ATENAS

Aro mizenikoan bazegoen populazio bat lurralde honetan, eta jarraitasuna eman zen, ez baitzen suntsipenik eman. Aro ilunean, Atikako eskualdean mugimenduak egon ziren (zeramika geometrikoa garatu, esaterako) eta sinezismoa eman zela uste da.

Hasieran, Atenasen monarkia bat zegoela suposatzen da, eta oligarkiara pasatu zela aro arkaiko hasieran, VIII. mendean alegia.

Iturri idatziak VII. mendetik aurrera agertu dira, monarkiatik oligarkiara pasatzea justifikatu dutenak.

- Boterearen antolaketa

MAGISTRATURA aristokratikoak banatzen ziren boterea eskuratzeko, denbora mugatua zuten kargu politikoak izanik. 3 arkonte (urte bateko iraupena) existitzen ziren:

BASILEUS>funtzio erlijiosoa

PTOLEMARKO>tropen gidaritza

EPONIMO>agintari garrantzitsuena, urteari izena ematen ziona.

Ondoren, KONTSEILUA existitzen zen, funtsean hiritar aristokraten batzat bat zena, baina mugatua. Horren izena AREOPAGOA zen, erretiratutako arkonteek osatzen zutena.

Gainerako hiritarrak 4 tributan banatzen ziren, bizitokiaren arabera definitzen zirela tribu horien kokapenak eta horien mugak.

- Zilon (K.a. 630)

Atenasen tirania ezartzen saiatu zen Zilon, joko olinpikoak irabazi ondoren boterea baliatuz. Aristokrata batzuk alde zituen eta beste batzuk kontra, eta beraien artean STASIS horizontala eman zen.

Egoera honen aurrean, Drakon legegile izendatu zuten (K.a. 620) eta horrek mendekuen kontrako lege oso gogorrak ezarri zituen.

Alabaina, garai honetan gizarte arazoak handitu ziren; aristokratek botere politikoa, judiziala, militarra, erlijiosoa eta lurren jabetza biltzen zuten bitartean, nekazariak zorpetu egiten ziren eta lurrak galtzarekin batera, esklabu bihurtzen ziren. Gainera hainbat nekazarik eta artisauek ez zuten parte hartze politikorik. Egoera horretan, hainbat arazo sozial eman ziren, soluzio efektiborik gabeak.

- Solon

K.a. 594an arkonte eponimo zen Solon, Atenaseko EUPATRIDA talde aristokratikokoa. Legegile handia izan zen eta lurra zein jabetzaren inguruan hainbat berritasun ekarri zituen.

Ordura arteko zorrak ezabatu eta esklabuak askatu zituen, baita zorren ondoriozko esklabutza abolitu ere. Hala ere, jabetza pribatua mantendu zuen (nekazariak galdutako lurrak ez itzuli), eta lurrik ez zuten hiritarrak Atenasera bidali ziren, artisauek edo merkatari izatera.

Erakundeak erreformatu zituen, Solonen konstituzioaren bitartez. ARKONTEAK eta AREOPAGOAK mantendu zituen, baina erakunde berri batzuk txertatu zituen.

BOULÉ>400 hiritar batzen zituen erakundea, 100 tribu bakoitzeko.

HELIEA>tribunalak

EKKLESIA>hiriko asanblada.

Erakunde guzti horiek SISTEMA TIMOKRATIKOAN antolatuta zeuden, hau da, aberastasunaren arabera sailkatzen ziren. Aberastasun hori neurtzeko, MEDIMNOAK (gari produkzioa) erabiltzen ziren.

- 1) Pentakosiomedimnoi→500 baino gehiago (arkonte + areopago, kargu gorenak)
- 2) Hippeis→300 baino gehiago (zaldunak)
- 3) Zeugitai→200 baino gehiago
- 4) Thetes→200 baino gutxiago (ASANBLADA)

Sailkapen horrek tropetan eragina izatean zuen, antolaketa militarra baldintzatuz. Gainera, erakunde berrien sorrerak elite berriei botere politikoa bermatu zien.

Solonek luxuaren kontrako araudiak ere eraman zituen aurrera, familia aristokratikoen arteko lehiak ekidin nahian.

→familia, ezkontza eta hiletaren luxua erakusteari mugak ezarri zizkion, ondorioz emakumearen presentzia publikoa txikitu zen.

→familia, ezkontza eta herentzien legea ezarri zuen; ezkontza legal baten barneko seme-alabak hiritarrak izango dira. Gainera, emakume hiritarraren papera definitu zuen, erreproduzitzera mugatuz batik bat.

→prostituzioa arautu zuen; emakume hiritarra ezin zen prostituta izan, bestela hiritartasuna galduko zuen. Horrela, prostituzioari zergak jarri zizkion.

Agintaldi honen ondorioak hainbat izan ziren Atenasko gizartean. Aristokratek boterearen monopolioa galdu eta aberastutako hiritarrek eskuratu ahal izan zuten, eta esklabu bihurtzeko arriskua desagertu zen. Gainera, hiritar guztiek hartzen zuten parte asanblada zein tribunaletan.

DEMOSA definitu zen, hiritarren komunitatea, eta emakumea pribatura zuzendu bitartean, gizona publikora eraman zen. Funtsean, Atenas klasikoaren familia zein genero sistemaren oinarriak ezarri ziren.

- Pisistrato eta bere semeen tirania (K.a. 561-510)

Atenas barnean desadostasuna gailendu zen urte horietan, eta 3 fakzio ezagutzen ziren barnean, lurralde eta interesen arabera sailkatuta. Horietako baten buru zen PISISTRATO.

Atzerago tirania saiakerak egin arren, K.a. 547an lortu zuen errealki; politika bateratzaileak ezarri zituen (prestamoekin oreka bilatu) eta Solonen konstituzioa mantendu zuen. Demosaren batasuna eta sentimendua bultzatu zuen eta horretarako erlijioa erabili zuen, festa handiak eginez herri guztiak parte hartzeko.

Ekonomikoki, eraikin publikoak egin zituen, lan-eskaintza handituz. Meatze gunek ustiatu zituen, zilarra lortuz. Merkataritza eta artisautza bultzatu zituen, esaterako Atikako zeramika mediterraneoan zehar zabalduz eta hainbat tiranorekin aliantzak sortu zituen.

PISISTRATO hiltzean, seme pisitratidak izan ziren ondorengo, HIPIAS eta HIPARKO. Horiek tiraniarekin jarraitu zuten, nahiz eta autoritarioago eta handinahiagoak izan. Artista eta poeta asko ekarri zituzten Atenasera.

Gauzak horrela, HIPIAS eta HIPARKOren aurkako oposizio aristokratikoa eman zen. Hain zen horrela, ezen amodio kontu batengatik HIPARKO eraila izan zen, eta HIPIASEK errepresioarekin erantzun zion gertaera honi. Atenasko familia asko erbesteratu ziren heinean, Espartari laguntza eskatu eta HIPIAS tiraniatik botatzea lortu zuten.

- Klistenes legegilea (K.a. 508-507)

Garai honetan, aristokrazia bitan banatu zen, ISAGORASen aldekoak (aristokratikoagoak) eta KLISTENESen aldekoen artean.

Klistenes ALCMEONIDAK talde aristokratikoaren parte zen eta honakoa defendatzen zuten; 'demosari kasu egin behar zaio gure boterea mantentzeko'. Horrela, erreformak egin zituen, batez ere boterea erakunde aristokratikoetatik demosera pasatuz. Horretarako, ISONOMIA erabili zuen, hiritarren legearen aurreko berdintasuna aldarrikatuz.

Lehengo gizartean, senidetasun sistema (erlazioak), 4 tribuen sistema eta klientela sistema (besteengan boterea) gailentzen ziren, baina KLISTENESek menpekotasun sareak apurtu nahi zituen.

Atika 139 demosetan banatu zuen eta bakoitzak DEMOARCHOSA (agintaria), jaiak, biltzarrak... ospatzen zituen. Horrela, hiritartasuna lurraldean zabaldu zen, hiritar guztiak izan behar baitzuten demos bat. Pertsonen izendapena aldatu zen, izena + demosa ezarriz (Eider Bergarakoa).

10 tribuetan banatu zuen antolaketa politiko zein militarra, eta tribu bakoitzaren barnean 3 TRITIA zeuden, kostako, mendialdeko eta lautadako bana (geografikoki bereizita). Horrela, tokian tokiko eliteekin amaitu zuen.

Erakundeei dagokienez, AREOPAGOari konpetentziak kendu zizkion (aristokraziari funtsean), eta BOULÉa indartu zuen, 500 pertsonara handituz (50 tribuko, zozketaz aukeratuak eta +30 urte). Bertako presidentzia txandakatu zen eta BOULÉaren eginkizun nagusia legeak EKKLESIAri proposatzea zen.

- Ostrazismoa

Ostrazismoa tirania ekiditeko mekanismoa da. Funtsean, asanbladako bozketa bat izaten zen, mehatxu izan zitezkeenak epaitzeko. Horrela, 10 urte Atenastik kanpo eman behar zituzten, baina bere jabetzak zein familia zaindua izaten zen.

3. ARO KLASIKOA

3.1 ATENASKO SISTEMA DEMOKRATIKOA

Iturri idatziak ageri dira garai honen inguruan; alde batetik, ARISTOTELES idazleak demokraziaren irudi pesimista adierazten zuen, eta beste aldetik, antzerkigileak eta historialariak ikuspegi positiboarekin ikusten zuten.

KLISTENESEN erreformekin hasi izen garai hau, eta V. eta IV. mendean PERIKLESEN garaian egindakoekin jarraitu zuen.

SISTEMAREN OINARRIAK

Isonomian oinarritzen zen, nahiz eta guztiz ez lortu, asko aurreratu baitzen. Gainera, partaidetza zuzena zegoen, hiritar guztiak polisaren kudeaketan parte hartzen baitzuten, zozketa edo bozketa sistemen bitartez.

Magistratura asko zozketa bidez aukeratzen ziren, baina trebetasuna behar bazen bozketa egiten zen. Horrek herriaren aurrean erantzun behar zuen, eta epaitua izan zitekeen. Funtsean, herri justizia bermatzen zen, herria baitzen epailea.

Inperialismoaren baliabideak erabili zituzten demokrazia eta horren garapena sustatzeko.

DEMOKRAZIAREN GARAPENA V. MENDEAN

- Temistokles (Mediar Gerrak)

Gerran bultzada demokratizatzailea eman zuen eta itsasontziek garrantzia irabazi zuten (Thetesak egon bertan, armarik ez zutelako).

487an erreforma garrantzitsu bat egin zuen, 2 puntu definituz; lehenik, ARKONTEAK aukeratzeko Solonen lehen bi klaseen baitan zozketa ezarri zen, lehen AREOPAGOAK aukeratzen baitzuen. Bigarrenik, ESTRATEGOEK koordinatzen zuten gerra, eta ez ARKONTE PTOLEMARKOAK.

472an, ostrazismoaren bitartez kanporatu zuten TEMISTOKLES, eta hainbat ondorengo egon ziren.

→ZIMONen kasuan, AREOPAGOEN aldeko politika egin zuen, oligarkia babestuz.

→EFIALTESi dagokionez, 462an AREOPAGOAREN erreforma egin zuen, boterea galtzea eraginez. 461ean, ostrazismoaren bitartez ZIMON kanporatu zuen, baina aristokraten konplotaren eraginez hil egin zuten.

- Perikles

Perikles alderdi demokratikoaren buruzagi zen eta loraldi ekonomikoa ekarri zuen Atenasera, erakunde eta magistraturak zabalduz. MISTHOS (soldata) ezarri zuen eta BOULÉ, HELIEAN, ARKONTEEK ETA EKKLESIAN jasotzen zuten hori. Horrela, demokrazia erradikala ezarri zen.

Periklesek eskubide asko eman zizkien hiritarrei, baina hiritartasuna mugatu zuen, aita eta ama Atenastarrak izan behar zirela baldintzatzat jarriz. Hala ere, bere semeari eman egin zion, ama Miletokoa izan arren.

ATENASTAR GIZARTEA (PERIKLES)

Partaidetza politikoa mugatua zen, eta biztanleria guztiak ez zuen demos bat izaten. Gainera, demos batean egoteak ez zuen eskubide politikoak ahalbidetzen, 18 urte beherakoek ez baitzituzten eskubideak eta 30 urtetik gora izan behar baitzuten karguak hartu ahal izateko. Horiek, ordea, galdu zitezkeen eta argi zegoen oligarkek abantailak zituztela, hezkuntza eta denborari dagokienez, esaterako.

- Lege-egoera desberdinak

POLITAI>hiritar arruntak izaten ziren (20.000-50.000).

METOIKOI (meteko)>polisean modu legalean bizi ziren atzerritarrak izaten ziren, eta zergan bat ordaintzeaz gain, babesle (protastés) bat izan behar zuten. Merkataritzan, bankuetan zein artisautzan aritzen ziren, baina ez zuten lurrik izaten. Ez zituzten eskubideak eta armadan parte hatzen zuten.

DOULOI>esklabuak izaten ziren, eskubiderik gabeak. Ondasuna izaten ziren eta salerosketa egiten zen beraiekin. Jabeak askatuz gero, meteko izatera pasatzen ziren.

- Aberastasunaren arabera

KALOI KAGATHOI>aberatsak izaten ziren, LITURGIA (zerbitzu publikoak finantzatu) ordaintzen zutenak herriaren onerako erabiltzeko.

TO PLETHOS>gehiengoa izaten zen; lan egiten zuten, politikan baldintza txarragoak zituzten eta armadan parte hartzen zuten, opita edo arraunlari bezala.

- Generoaren arabera

Emakumeek zein gizonek zuten hiritartasunerako eskubidea, baina ez ziren modu berean interpretatzen; gizonak askeak ziren eta gerra zein kargu publikoetan parte hartzen zuten. Emakumeek, ordea, ondorengoei hiritartasuna zein herentzia ematen zien, baina ez zuten hiritartasun horretaz gozatzen.

Orokorrean, AUTOKTONISMOAREN IDEOLOGIA gailentzen zen; Atenasko gizonak (hasierakoak) lurretik ateratakoak zirela defendatzen zuten, eta emakumeak Pandoraren alabak zirela. Horrela, ez zirenez autoktonoak ez zituzten eskubideak izango.

ERAKUNDEAK

EKKLESIA>asanblada zen eta Pnyx muinoan batzen ziren. Eginkizun nagusiak magistraturak, legeak eta ostrazismoa aukeratzea zen. Bertan +18 urteko hiritarrak parte hartu zezaketen.

BOULE>batzordea zen eta Bouletarioan batzen ziren. Eginkizun zabalak izaten zituzten, hala nola, magistratuak kontrolatzea eta asanbladak deitzea. +30 urteko 500 kidek osatzen zuten, tribu bakoitzeko 50 pertsonak. Pritanoen (presidentea) txandakatzea ematen zen, 10 aldiz.

HELIEA>Herri auzitegia izaten zen eta Agoratik hurbil batzen ziren. Eginkizun nagusia delitu arruntak epaitzea zen. +30 urteko 6000 hiritar gizonek osatzen zuten eta MISTHOS jasotzen zuten.

AREOPAGOA>Batzorde aristokratiko ohia zen eta eginkizun gutxi zituzten, arkonte ohiak baitziren. 487tik, ARKONTEAK zozketa bidez aukeratzen ziren SOLONen 3 klaseen artean (THETES ez).

MAGISTRATURAK

ARKONTEAK>Aukeraketa egiten zen eta guztira 9 arkonte mota ezagutzen ziren, 3 tradizionalak (PTOLEMARKO, BASILEUS, EPONIMO) eta beste 6 THESMOTHEAI, justizia kudeatzen zutenak.

ESTRATEGOAK>Nahi beste aldiz aukeratzen ziren magistraturak ziren.

Iturri guztiak Atenasetik zetozen, eta ATENOZENTRISMOA nagusitu zen.

Garai honetan Greziako nazioarteko harremanak ematen hasi ziren, V eta IV. mendeetan hain zuzen ere. Polisak ziren protagonista nagusia, baina ez zeuden bateratuta. Horrela, harreman horiek SYMMACHIA edo LIGA bitartez ematen ziren, polis batzuen artean aliantzak eginez. Normalean, liga batek izaten zuen hegemonia. Polis batzuek nagusitasuna zutenean, aliatuei baliabideak eskatzen zizkien, baita gobernu-sistemak inposatu ere.

Pertsiarren parte hartzea greziar polis batzuekin egindako aliantzetan agertu zen eta politikan parte hartzera iritsi ziren.

3.2 MEDIAR GERRAK

Akemenastar edo Pertsiar Inperioa multikulturala zen; VI. mende erdialdean Asia Txikia konkistatu zuten. Gainera, Lidiako erresuma, kostaldeko hiri greziar batzuk konkistatu zituen, EGEO periferia kontrolatuz.

Mediar Gerrak HERODOTO historialariaren bitartez ezagutu ziren, V. mende erdian 'historiak' idatzi baitzituen (9 liburua). Horrelako kasuetan, hainbat modu zeuden historia egiteko; OPSIS, begiekin ikusitakoa deskribatu zitekeen, baita AKOÉ erabili, beste batzuek esandako gauzak idaztea. Datu exotikoetan fijatzen ziren, eta mitoek zein tradizioek obretan eragiten zuten.

POLIS JONIAK MATXINADA

Lehen kolonizazioan Asia Txikian sortutako hiriak polis JONIAK ziren, eta VI. mende hasieran hiri horiek konkistatu zituen, inongo arazorik gabe.

Alabaina, VI. mende erdialdean Pertsiarren konkista eman zenean, ez zuen mesederik egin, zergan batzen baitzituzten ondoren Susara bidaltzeko. Bertan tiraniak ezarri zituzten, eta bertako biztanleak kontra agertu ziren, demokraziaren aldeko hiritar-taldeak ageri zirela.

499an tiranoen kontrako matxinada eman zen, grezia kontinentalari laguntza eskatu ondoren (Atenasek lagundu). Sardes (hiriburua) suntsitu zuten, baina Pertsiarrek tropak bidali eta giroa lasaitu zen. Alabaina, tirania kendu eta demokrazia ezarri zen, pertsiarren kontrolpean.

Pertsiarrek Egeoa arazoak ekarri ahal zituztela ikusi zuten eta hori kontrolatu nahi izan zuten Greziak, pertsiarrek arazotzat ikusten baitzituen.

LEHEN MEDIAR GERRA (K.a. 492-490)

Dario I.a zen Persiako errege, eta aurretik Grezia iparraldeko lurralde batzuk eskuratuta zituen. Espedizio diplomatikoak egin zituen 'ura eta lurra' exijituz eta hegemoniarekin gailenduz. Azken hori hiri askok onartu egin zuten, baina beste batzuek ez, esaterako Atenas eta Espartak.

Hala, nahiko ez bazen, Pertsiarrek itsas-espedizio bat egin zuten 490an, Atenas menperatzeko asmotan. Maratoiko lautadara jo zuten eta ondoren Atenasera. Atenasek laguntza eskatu zion Espartari, baina arrazoi erlijiosoengatik ezin izan zuten laguntza eman. Hala ere, Atenasek Plateako polisarekin aurre egin zien pertsiarrei eta GARAIPENA lortu zuten.

Ez zuten Atenas suntsitzea lortu eta autoestimu kolektiboaren gorakada eman zen, harrotasuna zabalduz. Atenas pertsiarren aurkako polis erreferentziala bihurtu zen, baina pertsiarrentzat galera txikia izan zen, beste toki batzuk kontrolatzea ospatu baitzuten. Horrela, pertsiarrek EGEOA bakean utzi zuten denbora batez.

BIGARREN MEDIAR GERRA (K.a. 480-478)

Jerjes zen orduko erregea eta Babilonian zein Egipton matxinadak pairatu zituen.

480an Egeoko kontrola lortzea jarri zuen helburu bezala berriz eta horretarako ejerzitu handia prestatu zuen. Bitartean, Grezian polisak beraien arteko gatazketan zentratuta zeuden, baina LIGA PANHELENIKOA eratu zuten pertsiarren aurka; Espartak buruzagitza zuen (boteretsua hoplitekin), eta Atenas flota garrantzitsua zen, Laurionen zilarra aurkitu ondoren finantzatu baitzen.

Jerjes lurrez sartu zen Grezian. 480an TERMOPIAK, pertsiarrek gelditu egin ziren eta Atenastarrak irla batera joan ziren. Urte berean SALAMINA, itsas bataila bat eman zen eta greziarrak garaile atera ziren, pertsiarrek iparraldera mugitu zirela negua igarotzera. 479an PLATEA eta MIKALAKO gudetan amaitu zen gerra, Grezia garaile ateratzearekin batera.

Greziarrek irudi kolektibo bat eratu zuten gerren ondorioz, eta hori barbaroei erakusten zieten. Gainera, greko-pertsiarren arteko dikotomia eratu zen, baita mendebalde zein ekialdearena ere. Greziarrak askatasunaren defendatzaile bihurtu ziren ekialdearen kontra, ekialdea despotikotzat definitu baitzen, ORIENTALISMOA ezarri.

PENTEKONTEZIA

50 urteko Atenasen nagusitasunari deritzo, K.a. 479 eta 431 bitartean. Atenas inperialistak hegemonia asko irabazi zuen Delosko ligaren bitartez eta Esparta Peloponeson zentratu zen, kontrolatzeko asmoarekin. Lehen aliatuak baziren ere, geroz eta mesfidantza gehiago zegoen beraien artean.

Iturriak atenastarrak dira, idatziak, epigrafikoak eta arkeologikoak.

DELOSKO LIGA (477)

Pertsiarren mehatxua sentitzean, horien kontralo aliantza bezala sortu zen; Atenas, Egeoko irla gehienak eta Asia Txikiko kostaldeak (Anatolia) osatzen zuten. Azken horiek laguntza eman zien Atenasi, izan gizonak, ontziak edo diruaren (phoros) bitartez.

Ligaren batzar gunea Delosko uhartea zen, altxorra (phoros) gordetzen zen tokia eta urtero biltzen ziren bertan. Atenasen nagusitasuna nabaria zen.

ATENASTARREN IMPERIALISMOAREN GARAPENA

Hirugarren Mediar Gerra eman zenean, Atenasek polisak aliantzak egitera behartu zituen. Gainera, 454. urtean altxorra Atenasera mugitzearekin batera, pertsiarren mehatxua bajutzean, polis batzuk ligatik atera nahi izan zuten baina Atenasek militarki behartu zituen gelditzera.

Altxor hori, ordea, demokrazia finantzatzeko eta Akropolia eraikitzeke erabili zen.

449an, DELOSKO LIGA eta PERTSIAK Kaliasko Bakea sinatu zuten, pertsiar mehatxuak ekiditeko. Egoera horretan, Atenasek DELOSKO LIGA inperio bat eraikitzeke erabili zuen, mehatxurik gabe egongo zirela aprobetxatuz.

KLERUKIAK ezarri zituen beste polisetan, bere hiritarrak agintean jarriz militarki kontrolatzeko. Gainera, aliatuen arazoak Atenasek epaitzen zituen.

Emandako inperialismo honek Espartarekin zuen harremanak kaltetu zituen, nahiz eta Mediar Gerretan aliatu izan. Horiek amaitzean, Temistoklesek Atenasko harresiak handitu eta indartu zituen eta Espartaren mesfidantza piztu zuen horrek.

Periklesen 30 urteko bakean harreman baketsuak mantendu baziren ere, 30. hamarkada inguruan DELOSKO LIGA handitu zuten, Espartari zegozkion Peloponeso, esaterako, hartuz. Horrela, 431n Espartak gerra deklaratu zion Atenasi.

PELOPONESOKO GERRA (431-404)

- 1) DELOSKO LIGA>Atenas, Egeo, Asia Txikia
- 2) PELOPONESOKO LIGA>Esparta, Grezia kontinentala (Korinto, Tebas), Grezia Handia (Italia hegoaldea).

TUZIDIDES izan zen gerra honen iturri nagusia, nahiz eta gerra amaitu baino lehen hil zen. Bere "Peloponesoko Gerraren Historia" lanean aurki daiteke, XENOFONTERen "Helenikak" lanak jarraitu ziona.

Tuzidides estratego Atenastarra izan zen, baina kanporatu egin zuten Peloponesoko ligaren lurraldera. Bertan, hango ikuspegia menderatu zuen eta objektibotzat defini daitekeen autorena da. Hala ere, LOGOI teknika erabiltzen zuen, narrazioan diskurtsoak sartuz, asmatutakoak izanik.

30. hamarkadan, Espartak enbaxada bidali zuen, beraien izenean mehatxuak bidaltzen zituztela. Gerra hastean, lurrez nagusitasuna zutenez, Atenasera heldu eta zatiak suntsitu zituzten. Hala ere, Atenastarrek pertsiarren laguntza izan zuten eta beraien flotaren (dirua) bidez garaipena lortu zuten.

- Delosko liga

30. hamarkadan bidalitako enbaxadari ezikusiarrena egin zion Periklesek. Itsasoan nagusitzen ziren Atenastarrak, eta harresi handiak zituzten, Atenas eta portua lotuz. Horrela, lurak suntsitu zizkieten bitartean, beraiek harresi barnean mantendu ziren eta baliabideak itsasotik lortzen zituzten.

430ean izurrite bat egon zen eta denak pilatuta zeudenez, jende asko hil zen, horien artean PERIKLES. Gainera, aliatuen matxinadak egoten hasi ziren, Atenasi fronte asko zabalik geratu zitzaizkiola.

415-413 artean Siziliako porrota jasan zuten eta ia guztiak hil egin ziren. Ondoren, 405an emandako EGOSPOTAMOSEKO batailan Atenas garaitu zuten, flota galduz. Horrela, 404an gerra amaitu zen, Espartaren garaipenarekin.

HEGEMONIA LORTZEKO BORROKAK

Espartaren hegemonia gailendu zen ondorengo urteetan, eta horiek polisetan oligarkiak ezarri zituzten, zergan eskatuz. Destakamentu militarrek ezarri zituzten polisetan, hiria kontrolatzeko soldadu taldeak zirenak. Atenasen kasuan, tirania ezarri zuten 404an eta 30 tiranoen gobernuari hasiera eman zion.

Hala ere, hegemonia horren aurkako mugimenduak egon ziren; Persiak Asia Txikia birkonkistatu zuen eta Espartaren aurkako aliantza bat sortu zen, Atenas, Tebas, Korinto eta Argos hiriek osatutakoa, Korintoko Gerran amaitu zuena.

Gerra hori ERREGIAREN BAKEAREKIN amaitu zen eta bertan, pertsiarren Asia Txikiaren gaineko kontrola zein Greziako Espartaren kontrola onartu zuten.

- 70 hamarkada

Liga berri bat osatu zen, BEOZIAKO LIGA, Tebas buru zuela. Hori Esparta eta Peloponesoren aurkako liga bat zen. Gainera, Atenasek bigarren liga osatu zuen, BIGARRREN ATENASTAR KONFEDERAZIOA deiturikoa.

Tebasen hegemonia gailendu zen denbora batean; LEUCTRAKO bataila irabazi zuten (Espartaren aurka) eta arlo militarrean nagusitasuna erakutsi zuten (EPAMINONDAS gerlaria). Horrela, pertsiarren babesa lortu zuten eta ILOTAK independizatu egin ziren. Alabaina, 362an Atenas eta Esparta Tebasen aurka borrokatu ziren eta Tebasen hegemonia galdu zuen.

4. ARO HELENISTIKOA

4.1 ALEJANDRO HANDIA

Filipo II eta Olinpia gurasotzat zituen Alejandro Handiak eta 336an (20 urte) errege bihurtu zen, QUERONEAko batailan zalditeria gidatzen erakutsitako nagusitasunaren ondoren. Alabaina, errege gaztearen aurrean batzuk matxinatu egin ziren.

334-323 urte tartean, Persiako Inperio Handia konkistatzea lortu zuen, baina handik gutxira, 33 urterekin, Babilonian hil zen.

Oso goiz mitifikatu zen pertsona izan zen, eta bere inguruan zabaldutako mitoak zein benetako historia zail desberdintzen da.

BOTEREAREN OINARRIAK

- Indarra eta konkistak

Mazedonian ageri ziren matxinatuak zapalduak izan ziren. Gainera, Grezia Kontinentaleko polisak (Korintoko Liga) altxatzean, gerrarekin erantzun zuten eta garaitu egin zuten, 335. urtean. Garrantzitsuenak Atenas eta Tebas izanik, Tebas guztiz suntsitu zuten eta Atenas barkatu ondoren, ez zuten suntsitu.

Bestalde, 10 urtetan konkistatu zuten Persiar Inperio Handia.

- Politika eta ideologia

Alejandro Handia Mazedoniako erregea zen eta inguruan noble laguntzaileak izaten zituen, HETAIROI zeritzenak. Hala ere, mazedoniarrek bakarrik egoten ziren administrazioan eta armadan.

Grezia Kontinentalean, Korintoko Ligaren bitartez laguntza jaso zuten (tropak esaterako) eta legeak ere inposatu zituen bertan. Grekoek parte hartze txikia zuten armadan, eta asko rehen bezala hartzen zituzten. Alabaina, Alejandro Handiak Greziarekiko irudi ona nahi zuen eta propagandan, kanpaina positiboan zein txanponetako irudietan inbertitu zuen.

Egipto eta Babiloniaren kasuan, lehen Persia zirenak, askatzailetzat ikusi zuten Alejandro eta bertako elite erlijiosoekin hitzarmenak egin zituen, autonomia emanez.

Persiari dagokionez, poliki-poliki konkistatzen joan ziren. Hasieran etsaitzat hartu bazuten ere, denboran aurrera pertsiar kultura eta ohiturak bereganatu zituzten mazedoniarrek, inguruko eliteengana gerturatzeko (jantziak esaterako).

Gainera, dibinizazio prozesua eman zen Alejandro Handiaren kasuan, bere burua jainkoaren semetzat irudikatuz.

Dario III.ak jarraitzen zuen errege bezala, baina SATRAPA (eskualdeetako gobernatzaile txikiak) hil zutenean, Alejandrok mendekua bere eskuetan hartu eta Persiako errege izendatu zen. Horrela, Darioren aldeko hiritarrek itxura ona eman zuen (mendekua) eta aitzakia ona zen SATRAPA horien aurka joateko.

Alejandro ezkondu egin zen, hainbatetan; horrela, Dario III.aren familiako emakume batzuek gain, Baktriako printzesa zen ROXANAREkin ezkondu zen. Gainera, mazedoniarrek pertsiarrek ezkontzera behartzen zituen, horrek eliteen poza ekartzen zuelarik.

Bere bizi amaieran, pertsiarren armadan zein administrazioan sartu zen eta horrek mazedoniarren haserrea sortarazi zuen.

- Administrazioa

Botere nagusiak HETAIROIEN artean banatu zituen, eta konkistatutako lurraldeetan tokian tokiko eliteei autonomia ematen zitzaaien, trukean zergan emanez.

Horrela, administrazioaren boterea bi kontzeptuetan laburbiltzen zen, barne-autonomia batean, baina Alejandroren subiranotasun baten oinarriarekin (zergan eta legeak aldatzeko ahalmena). Gainera, lurralde guztietan aurkitzen ziren mazedoniar guarnizioak (armada zatiak).

Lurralde askotan hiriak sortu ziren, hala nola, Egiptoko lurraldean ALEJANDRIA sortu izana, Alejandro Handiak utzitako izena.

ONDORENGOTZA

Lehenik, FILIPO III ARRIDEO (Alejandroren anaia) izan zen ondorengo, baina buru sinbolikotzat jotzen zuen, izan ere, dibertsitate intelektualen bat zuelakoan, ez zen gai buruzagitzat bereganatzeko. Urte batzuetan eraila izan zen.

Ondoren, ALEJANDRO IV (Roxanaren semea) izan zen hautagai, baina mestizoa zenez, ez zen erregetzat onartu eta nerabe zenean erail egin zuten.

Azkenik, DIADOKOEN aukera erabili zuten, Alejandrorekin HETAIROI izandakoen artean lurra banatu eta gobernadore bihurtuz. Taktika honek, ordea, ez zuen funtzionatu.

ARAZOAK

Greziako hainbat hiri altxatu egin ziren eta GERRA LAMIKOAK eman ziren; Mazedoniaren garaipenaren aurrean, Atenasek demokrazia galdu zuen.

Gainerako lurraldeetan DIADOKOEN eskuratu zuten boterea, baina eremuekin zein mugekin arazoak izan zituzten. Hain zen horrela, ezen 323-285 urte artean DIADOKOEN GERRAK eman ziren hainbat lurraldetan.

4.2 ERREINU HELENISTIKOAK

Erreinu horiek iraganean emandako gatazketatik biziraun zuten lurraldeek osatu zituzten; mazedoniako lurraldean, esaterako, ANTIGONIDEN MAZEDONIA erreinua gailendu zen, eta Egipton, berriz, LAGIDEN EGIPTO, Ptolomeoen eskutik.

Denbora aurrera joan ahala, erreinu berriak sortzen joan ziren (III-II. mendeetan), nahiz eta lehengoak mantendu ziren. Horrela, erreinu greko-baktrianoa, Pontoko erreinua, Pergamoko erreinua edota grekoen barnean, Liga Eolioa eta Liga Akeoa sortu ziren.

MONARKIA HELENISTIKOAK

Erreinu guztiek izaten zuten monarkia eta horiek Persia zein Egiptoren eragina izaten zuten; erregeak gerraren buruzagi izaten ziren.

Bestalde, kultura grekoa nazioarteko eliteen kultura bihurtu zen eta erregeak horren babesleak izaten ziren (liburutegiak, antzerkiak... bultzatuz). Horrela, kultura adierazpen bikoitza gailendu zen; kultura grekoa bultzatu egiten zen baina bertakoa babestearekin batera.

Hirietan garapen bat eman zen; orokorrean, luxua bultzatu zen, jauregiak eraiki ziren eta abar luze bat. Ezkontzekin aliantzak egiten zituzten, eta nola edo hala, emakumeen papera handitu egin zen.

GIZARTE HELENISTIKOAK

Kultura 'mixtoa' gailendu zen, erreinuetako gizartea koloniala baitzen. Populazioaren gehiengoa landa eremuan bizi zen.

Eliteei dagokienez, elite greko-mazedoniarra sortu zen, grekoz hitz egiten zutena eta botere handia akumulatzen zutena, hala nola, hirietan, administrazioan, armadan...

Lekuan lekuko eliteak ere existitzen ziren baina garrantzia txikiagoa eskuratzen zuten. Horiek ere kultura adierazpen bikoitza erabiltzen zuten; ohitura grekoak hartzen zituzten elite gorenengana gerturatzeko (AKULTURAZIOA) baina ondoren beraien bizimodua eramaten zuten herrian.

- Barne kolonialismoa

Grekoak ez zirenen aurkako diskriminazioa ematen zen eta horrek grekoen aurkako konspirazioak sortzea ekarri zuen.

DESAGERPENA

Hainbat potentzien aldetik pixkanakako konkistak ematen hasi ziren erreinuetan barrena, Partoak edota Erromaren aldetik esaterako.